


BIZKAIKO FORU ALDUNDIA:


IDAZKIDE: Ayudante para escritura




Arantza Etxebarria Iturrate
arantza.etxebarria@bizkaia.eus
647612958

<https://web.bizkaia.eus/eu/web/comunicacion/b/22370>

 **Jarduera:** Bizkaiko Lurralde Historikoko gobernua da Aldundia, eta funtzioen sorta zabala du, hala nola, zergak biltzea, herri-lanak, ingurumena, kultura-ondarea eta gizarte-ongizatea. Euskara Zuzendaritzak Bizkaian euskararen normalizazioa sendotu nahi du, baita BFA barruan ere.

 **Sektorea:** Zerbitzu publikoak

 **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 3

 **Lokalizazioa:** Calle Obispo Orueta 6, 48009, Bilbao - Bilbo, Bizkaia

EUSKADI mailako berrikuntza **INKREMENTALA****Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Teknologia berrien laguntzaz administrazioan euskararen erabilera sustatzeko modu berri bat delako. Alde batetik, tresnak euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenak egiteko aukera ematen du, itzulpen-motor neuronal bat erabiliz, unean-unean erabiltzen ari den programatik irten gabe; eta, bestetik, Euskara Zuzendaritzako adituen taldeari hizkuntza-kontsultak egiteko aukera eskaintzen du, talde horrek zalantza aztertu eta erantzuna eman dezan.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) Bizkaiko Lurralde Historikoko gobernua da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde nagusietako bat. BFAk funtzioen sorta zabala gauzatzen du, hala nola hirigintza, errepideak eta herri-lanak, ingurumena, kultura-ondarea eta euskara. Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren barruan Euskara Zuzendaritza dago. Euskara Zuzendaritzak euskararen erabilera sustatu nahi du Bizkaiko gizartearen esparru guztietan, baita administrazioaren barruan ere.

IDAZKIDE proiektuak baliabide berria ematen die foru-erakundeko langile guztiei, ofimatikako oinarrizko programetan txertatuta (Outlook, Word, Excel, PowerPoint). Tresnaren bidez, itzultzeko eta kontsultak egiteko zerbitzu berehalako eta pertsonala eskaintzen zaie. Osagaiak azpimarratzeko moduko bi funtzionalitate eskaintzen ditu:

- Euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenak egiteko aukera ematen du, itzulpen-motor neuronal bat erabiliz.
- Euskara Zuzendaritzako adituen taldeari hizkuntza-kontsultak egiteko aukera eskaintzen du, talde horrek zalantza aztertu eta erantzuna eman dezan.

IDAZKIDE tresnak oinarrizko softwarearen arkitektura erabiltzen du, Net eta Java Script teknologietan oinarrituta, eta euskararako eta gaztelaniarako itzulpen-funtzionalitateak eskaintzen ditu, Eusko Jaurlaritzaren Itzuli plataformak emandako API bat erabiliz. SQL Server datu-basearekin konektatzen da eta https protokolo seguru bat erabiltzen du. Microsoft Office 365en ofimatikako oinarrizko programetan (Outlook, Word, Excel, PowerPoint) integratu da, XML manifest konfigurazio-fitxategien bidez. Web-aplikazio motako proiektu bat sortuz eraiki da, Visual Studioren laguntzailea eta .Net-en Framework-a erabiliz, eta intranet ingurunean zabaldu da, IIS aplikazioen zerbitzari baten barruan.

Proiektu honen bitartez, antzemandako beharrian bati erantzun bat ematen zaio eskura zeuden baliabideak bateratuz: ofimatikako tresnak, Bizkaiko Foru Aldundiko hizkuntza-aholkularitzaren zerbitzua eta Itzuli itzultzaile neuronal. Planteamendu horrek eraginkortasun-eta iraunkortasun-maila handia du; izan ere, honen antzeko zerbitzuak hasita sortzeak eta mantentzeak (bai hizkuntza-aholkularitzarako pertsonen egitura bat, bai itzultzaile neuronal bat) kostu handiak ekarriko litzuke.

Proiektua abian jartzeko, 2020an lantalde bateratua sortu zen Euskara Zuzendaritza Nagusiko eta Lantikeko langileekin. Horretaz gain, proiektua ezartzeko oinarrietako bat EJEk kudeatzen duen Itzuli itzultzaile neuronal denez, lantaldea EJErekin lankidetzan aritu da.

IDAZKIDE tresna beste foru-entitate batzuetara zabaltzen hasita dago. Horretarako, informatikariek tresnaren garapen berezia egin behar izan dute, entitate bakoitzaren barruan kudeatu dezaten kontsulta-zerbitzua.

Aurrekariak

2018an egindako diagnostikoan ikusi zen, BFAko langileen %82a elebiduna izan arren, euskararen presentzia lan-entorno errealean, konkretuki arlo idatzian, oraindik ez zela handiegia. Egoera honen kontrako faktore nagusien artean idaztearen ohitura- eta ziurtasun-falta eta lan-karga zeuden. Hori dela eta, Euskararen Erabilera Normalizatze plan berriaren helburuen artean, Euskara Zuzendaritzak honako hau zehaztu zuen: BFAko langile guztiei baliabideak ematea haien idatziko euskarazko ekoizpena handituz joan dadin, autonomiaz, lan ingurune errealean eta teknologia berriak baliatuta.

Erronka

Egoera honi erantzun bat emateko, BFAk premisa desberdinei aurre egin behar zien:

- Itzulpen erreminta testua prozesatzen den lekuetan egotea, gaur egun dauden sare neuronalen teknologian oinarritutako instrumentuen erabilerak (Google translate, Elhuyar edota Eusko Jaurlaritzaren Itzuli) suposatzen duen denbora gehigarria ekidituz.
- Datu delikatuen babesa bermatzea, Gizarte Ekintza Sailean edota Ogasun Sailean lantzen diren datuak besteak beste.
- Erabilera erraztuko duen erreminta diseinatzea.
- Itzulpen automatikoaren zalantzak azkar argitu ahal dituen kontsulta-zerbitzua izatea.

Ekintzak

1. 2021aren hasieran IDAZKIDE proiektua garatzeko lehenengo proposamenak teknikoki baloratu eta proiektuaren irismena zehaztu ziren, eta tresnaren garapen informatikoa burutu zen.
2. 2021eko urrian, IDAZKIDE prototipoa baliozkotu zen eta Euskara Zuzendaritzako kide batzuei instalatu zieten, probak egiteko eta hobekuntzak proposatzeko.

3. 2021eko azaroan, 50 langile aukeratu ziren, prototipoa probatzeko.
4. 2021eko abenduan, inkesta bat bidali zitzaien fase pilotuan parte hartu zuten langileei, IDAZKIDE itzulpen- eta kontsulta-zerbitzuaren inguruan balorazioa eskatuz. Emaitzak oso onak izan zirenez, IDAZKIDE tresna Aldundi osora zabaltzea erabaki zen.
5. 2022ko urtarrilean, BFAn instalazioak egiten hasi ziren, sailez sail. IDAZKIDE tresna ordenagailuetan modu automatikoan instalatzen zen arren, tresnaren botoia eskuz bistaratu behar zen ofimatikako programetan ordenagailu guztietan. Honek aukera eman zuen langileen tresna erabiltzerako orduan zituzten zalantzak ezagutzeko.
6. 2022ko martxoan, instalazioa automatikoa izateaz gain, botoia ere modu automatikoan bistaratzea lortu zuten informatikariek. Horrek bideo-tutorial baten garapena bultzatu zuen, langileek IDAZKIDE tresna zer den, zergatik sortu den, eta zertarako erabili behar den jakin zezaten.
7. 2022ko ekainerako, IDAZKIDE ekipo guztietan instalatu zen, hau da, gutxi gorabehera 3.000 ekipotan.
8. 2022ko urrian, IDAZKIDEn garapen informatikoa egin eta foru-entitateetan instalatzen hasi da.
9. BFAn barruan inkesta bidali zaie langileei urrian, tresna nola baloratzen duten eta zer hobetu behar den jakiteko.

Lortutako emaitzak

- Bizkaiko Foru Aldundian 3.000 langile baino gehiago daude. Gaur egun, langile horien guztien ordenagailuetan instalatuta dago IDAZKIDE.
- Lehenengo neurketek erakusten dute hilero 4.000 itzulpen-eskaera inguru egiten direla tresna erabiliz, eta hilero itzultako hitz kopurua 100.000tik gorakoa dela.
- Kontsulta-kopuruari dagokionez, orain arte 400 kontsulta inguru jaso dira, baina kontuan izan behar da ekainean amaitu zela instalazio orokorra BFA osoan.
- Erabiltzaileek tresna eguneroko lanean erabiltzen dute, estatistikek hala erakusten baitute, eta tresna instalatzeko hainbat eta hainbat eskaera jaso dira. Hori dela eta, harrera oso positiboa izan dela ondorioztatu daiteke.
- Beste administrazio batzuek ere interes handia agertu dute osagaia erabiltzeko, eta hori aitortza handia da proiektuarentzat. Horrek erakusten du egon dagoen beharizan bati erantzuten dion eredu bat dela -itzultzeko erraztasunak erreminta ofimatikoetan txertatzea-. Tresna erakusteko batzarrak egin dira Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Barakaldoko Udalarekin. Foru-entitateek eta Asfedebi Bizkaiko Kiroi Federakundeek Elkarteak eskabidea egin diete IDAZKIDE instalatzeko.
- 2022ko urrian, Lantik foru-entitateetan instalatu da tresna.

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Produktua: Software-a.
- Prozesua: Berrikuntzaren Kudeaketa.

Aukera arloak:

- 1 - Eraldaketa teknologikoa/digitala

Amaia (Komunikazioetarako aholkularia)

“Idazkide tresna eskura daukagunetik euskarazko Komunikazioa asko erraztu da, adibidez, testu eta email asko azkar batean euskaraz jartzeko modu eraginkorra da. Dudarik gabe, lanean euskara aritzeko eta harremanak euskaraz sustatzeko ekarpen garrantzitsua dela iruditzen zait, horregatik lanpostua aldatu nuenean tresna berriro jartzea eskatu nuen.”

Beatriz (Antolaketako teknikaria)

“Idazkide erreminta eskura izatea oso lagungarria izan da egunerokoan euskara gure artean erabil dezagun, era erraz, azkar eta zuzenean. Izan ere, di-da batean zalantzak argitzen edota kontzeptu berriak euskaratzen laguntzen digu.”

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrotzte estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★☆☆☆☆

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★★★★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★★★★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆☆☆

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★★★★

★

Eragina: ★★★★★

Aintzatespena: ★★☆☆☆☆